



# Arantzako Udala

## UDAL INFORMAZIOA I 2019KO URRIA

### ADMINISTRARIA ETA IDAZKARIA

Lerro hauen bitartez, Arantzako Herriko Etxean idazkariarekin eta administrariarekin gertatzen ari denaren berri eman nahi dizuegu:

Jakinen duzuen bezala, 21 urtez Arantza eta Igantziko udaletxeetan idazkari postuan aritu ondotik, Mari Jose Larraiozek ekainaren 21ean utzi zuen kargua. Horren ondotik, Udalak, Nafarroako Gobernuaren bidez, Mari Joseren ordezkoa hautatzeko prozesua paratu zuen martxan. Azterketak egin ziren, eta proban puntuaziorik altuena bildu zuen Izaskun Etxeberria Larburu izan zen hautatua. Abuztuaren 19an hasi zen Arantza eta Igantziko idazkari lanetan.

Irailaren 16an, berriz, Herriko Etxeko administraria den Josetxo Urretak gaixotasun-baja hartu zuen. Aldi berean, Izaskun idazkariak irailaren 30ean idazkari postua utziko duela iragarri zuen. Hortaz, Udalak idazkaria aukeratzeko egindako hautaketa prozesuan bigarren gelditu zen Eguzkiñe Aiesa Andres kontratatu du idazkari posturako. Azken hori, ordea, amatasun bajaran dagoenez, oraingoz, hirugarren postuan gelditu zen Ainara Velez Ara ariko da idazkari lanetan.

Bertzetik, azken boladan Herriko Etxean pilatu den lan-karga arintzeko, sei hilabetetarako lanpostu bat sortuko dela jakinarazi nahi dizuegu. Gisa honetara, administrariaren eta idazkariaren lana arindu eta gibelatua dagoen lana eguneratu nahi dugu.

Kontuak kontu, azken boladan, Udalaren jarduera ezohikoa izan da eta herritarrei ezin izan diegu guk nahi bezalako arreta eman. Hortaz, barkamena eskatu nahi dizuegu sortutako eragozpenak direla eta. Gure aldetik, ahal bezain agudoen normaltasunera bueltatzea espero dugu, egoera hau ez baita ona ez herritarrentzako ezta Udalarentzat ere.

Bide batez, administrariaren eta idazkariaren lana errazteko eta eraginkorragoa izateko helburuarekin, lehen bezala, herritarren arretarako ordutegi bat zehaztea erabaki dugu. Hala, astelehenetik ortziralerara 10:00etatik 13:30 arte Herriko Etxeko ateari irekiak izanen dituzue. Ordutegia mugatuta udal langileek bertzelako lanak antolatzeak aukera izanen dute.

Edozein moduz, edozein arrazoi delako eta, norbaitek ordutegi horretan ezin badu Herriko Etxera joan, aitzinetik deituta (948 63 40 05) ongi heldu zaion ordua zehaztuko dute.

